

# AKTA

<b>Akta zenb.</b>	2009/3
<b>Organoa</b>	Udalbatza
<b>Batzarra</b>	Ohiko Osoko Bilkura
<b>Tokia</b>	Udaletxeko areto nagusia
<b>Eguna</b>	2009-06-22
<b>Deialdia</b>	Lehenengoa
<b>Hasiera ordua</b>	Arratsaldeko 19'30etan.
<b>Amaiera ordua</b>	Arratsaldeko 20'05ean.

## Bertaratutakoak:

1. Jesús M. Fullaondo
2. Iker Arostegi
3. Kepa Arrizabalaga
4. Leixuri Arrizabalaga
5. Gotzon Arrieta
6. José M. Markaida
7. Deitze Erkoreka
8. Maite Elordui

**Ez da etorri, baina horretarako arrazoiak emon dauz:** Iñaki Aginaga

**Aholkulari juridikoa:** Ortzi De la Quintana

**Behin-behineko Idazkaria:** José Ignacio Etxebarria Atutxa

Idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar dan gutxieneko kopurua dauala ikusi ondoren, eguneko aztergaian agertutako gaiei buruz eztabaidatu dabe:

### 1.- ARTEKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.

2009ko apirilaren 23ko, maiatzaren 28ko eta ekainaren 4ko osoko bilkuretako aktak, ahobatez onartzen dira.

### 2.- ALKATETZA DEKRETUAK.

2009-63 zenbakitik 2009-74 zenbakirarteko Alkate dekretuen kontu emoten da, eta ez da oharrik egon.

### **3.- DATUEN BABESA.**

Karakter pertsonaleko datuen babesaren gaineko aurkeztutako proposamena, ahobatez onartzen da.

### **4.- AUZOTARREN KASAZIO ERREKURTSOAREN KOSTAK.**

Idazkariak esaten dau puntu honetan, auzotarren 6665/04 zenbakidun kasazio errekurtsoren kostak (2.322,55.- €) eta prokuradorearen likidazioa (578,89.- €) ordaintzea eta Alkateari ordainketa egiteko agindua emotea bozkatzeko dala jakinarazoten dau.

Bozkatzerakoan honela gelditzen da:

- Abstentzioa: 4 (J.M. Fullaondo, Iker Arostegi eta Leixuri eta Kepa Arrizabalaga).
- Alde: 3 (J. M. Markaida, Deitze Erkoreka eta Maite Elordui).
- Kasuan afektatua izateagatik, ez dau bozkatzeko: 1 (Gotzon Arrieta).

Leixuri Arrizabalagak Gatikako EAJ-PNVren izenean hurrengo idatziaren laburpen bat egiten dau euskeraz, baina paperean itzulpena egin barik dagoenez gaztelaniazko testua sartzen da osorik, eta hurrengo esaten dau:

“ La postura de EAJ-PNV de Gatika con respecto a esta cuestión va a ser coherente con la ya tomada en el Pleno del 06-06-2002, NOS ABSTENEMOS DE VOTAR, pero seremos respetuosos con el acuerdo entonces tomado y seremos también respetuosos con el acuerdo que hoy se tome en este Pleno.

Ahora bien, ya entonces lo expresaron nuestros compañeros de partido, y lo ratificamos hoy, que no nos parece correcto se envíe al Ayuntamiento y a unos vecinos a un callejón sin salida en el que había mas cosas que perder que ganar. Máxime cuando desde la Diputación Foral de Bizkaia siempre hubo predisposición a dialogar y solucionar el conflicto, y no dejar que los vecinos que recurrieron judicialmente, se quedasen en una situación de inseguridad jurídica de sus viviendas. Nuestros compañeros de EAJ-PNV de Gatika en el año 2002 así lo pedían (una negociación con la Diputación Foral de Bizkaia), tal y como está reflejado en las actas de entonces, y nosotros, actualmente también creemos que era la mejor opción.

Efectivamente, estos vecinos se encuentran ahora en la situación de que sus viviendas no están legales de cara a la ordenación urbanística. Situación complicada que será necesario abordar en los próximos meses para solucionarlo.

Desde EAJ-PNV de Gatika la predisposición es absoluta a abordar este problema para darle una solución negociada con la Diputación Foral de Bizkaia a través de las nuevas Normas Subsidiarias, ya en marcha. Espero que del resto de los partidos de este Pleno, también.

Como decimos, EAJ-PNV de Gatika será respetuosa con el acuerdo que hoy se tome en este pleno. No obstante, no le queda otro remedio que hacer la pertinente advertencia de lo que el informe jurídico adjunto dice en el sentido de que una Administración Pública no puede pagar las costas judiciales de un procedimiento judicial que defendía intereses particulares o privados. Esto es concluyente y así debemos asumirlo cada uno de los que estamos aquí. “

Idazkariak, Udalaren aholkulari juridikoaren txostenaren kontrako akordio bat dalako ilegaltasun oharpidea egiten deutsea zinegotziei, Toki Administrazioaren Aurrekontuei buruzko Arauen kontrakoa eta Aurrekontuen estabilitatea arautzen daberen legeen aurkakoa dalako, besteak beste, eta euren jakitun gelditzen dira.

J. M. Markaidak, Leixuri Arrizabalagak esandakoari hurrengo erantzuten deuto:

Lehenengo puntua, zuk esan dozu Foru Aldundia gatazka konpontzeko prest egon zala, eta nik esaten deusut ez zala horretarako prest egon, baita esaten dozu aktatan agertzen dala Gatikako EAJ prest egon zala Foru Aldundira joateko, eta hori horrela da, baina Foru Aldundia ez zan egon prest gatazka konpontzeko; zuen partetik bai egin zan joateko proposamena.

Bigarren puntuak, auzotarren egoera etxebizitzak ez dagozela legalki, ez dakit badagoz edo ez badagoz legalki, baina bai esaten deusut hemen zerrendan dagoen jende gehienak ez dauka etxebizitza.

Esan nahi dot bere, informe juridikoagaz ez gagozela ados, “vecinos instigados” esaten dauanean, auzotarrei laguntza eskatu jakeen azaldu zan egoera, eta gero pleno baten onartu zan eta zer egingo zan esan zan.

Gero beste puntu baten esaten dau, auzotarrak euren interes partikularragatik sinatzen dabela, eta gu ez gagoz ados.

Kepa Arrizabalagak esaten dau, nik gauza bat esan gure dot, ze ni orduan hemen egon nintzen, orduan komisio bat egin zan hemen Diputaziora joateko eta joan ziren eta Diputazioak esan eutsean irtenbidea zala korporazioa hara joatea eta euren berba egitea, gero nik ez dakit korporazioa joan bazan.

J. M. Markaidak erantzuten deuto, Udaletxea joan zan Diputaziora gero ostean zer pasatu zan ez dakit.

Alkateak esaten dau, nik dakidanetik Diputazioak eskatzen zauena bakarrik zan 2002ko otsaileko udalbatzarrean hartu zan erabakia deuseztatzeko eta eta konpontzen hasteko. Orduan egon ziren berbak eta konpontzeko bideak, pasatzen dana da, udalbatzarrak ez zauela erabakia deuseztatzea onartu.

J. M. Markaidak esaten dau, gauza hau 6 hilabeteetan blokeatuta egon zan eta ez zan aurrera biderik egon.

J. M. Fullaondok galdetzen deuto, orduan udalarentzat zein izan zan aurrera bidea, akordioa dagoen moduan uztea eta aurrera jarraitutea.

J. M. Markaidak erantzuten deuto, udala egon zan Eusko Jaurlaritzan eta bertan esan eben Normak ondo dagozela.

Alkateak esaten dau, hemen egon zan arazo bakarra zan “silencio positivo”ko epea oraindik ez zala egon pasatuta. Epaileak orain sententzian esan dauana hori da, ez zegoela epea amaituta.

J. M. Fullaondok baita esaten dau, esan dozun beste gauza bat da, hor zerrendan dagozan pertsonak etxe barik dagozela eta orduan ez direla “parte interesada”.

Deitze Erkorekak erantzuten deutso, guk esan doguna da hor blokean ez daukatela etxerik.

Alkateak esaten dau, blokea da gauza bat eta hor dagoen jende asko ez direla blokekoak baina bai daukeaz etxeak arau subsidiario horreetan oinarrituta, eta momentu honetan horreek legalitatetik kanpo geratzen dira. Orduan zerrenda honetakoek hainbat dira afektatuek. Udal aholkulariaren txostenak horregatik esaten dau interes partikularrak dagozela.

J. M. Markaidak erantzuten deutso, guk horrela ez dogu ulertzen eta horregatik ez gagoz ados.

J. M. Fullaondok esaten deutso, errespetatzen dogu zuen erabakia, baina azalpen hau gure erabakiaren arrazoia emoteko da.

Deitzek esaten dau, dana dala nik esango nuke txosten honetan ez dala kontuan hartzen orduko asesoreak egindako informea, eta han argi geratzen da herriko jendea ez dala bere kabuz joan Diputazioaren kontra, eta baita bere Udalak hartutako iniziatiba bat zala, eta orduan horregatik ulertzen dogu logikoena Udalak kostatzea dala, guk eskatu deusagulako laguntza emotea.

Alkateak erantzuten deutso, egia dala lehengo txosten horrek hori esaten dauala, baina txosten horretan guk topatzen dogun falta da, ez daukala momentu baten bere analizatu hori legalki posible bada edo ez.

Deitzen Erkorekak esaten dau, baina orduan hartu zan erabakiak kostu guztiak udaletxearen kontura izango zirela esan bazuen, orain bere horrela izatea da normalena.

J. M. Fullaondok esaten dau, baina kontuan izan behar da non zagozen legalitate aldetik bere.

Leixuri Arrizabalagak esaten dau, akabuen ustea ona da eta alde batetik arrazoia daukazue, gu ados gagoz horregaz, baina momentu hartan ez zan legalki analizatu erabakia, eta orain hori analizatu da eta interesatuek diren hala ez.

Deitzek erantzuten deutso, nire ustez orduko abokatu profesionala dala uste dot, eta ez zauala erabakia "a la ligera" hartuko.

Leixurik esaten deutso, guk uste dogu baietz, erabakia apur bat "a la ligera" hartuko zala momentu gatxa izango zalako eta denbora gutxi zegoela, urduri egongo zalako eta Udalaren ekimena hoberena zala pentsatuko zualako, baina gu horretan ez gara sartzen. Orain urteak ostean ikusita eta analizatuta, guk gure dudak daukaguz orduko erabakia legalkia dan edo ez, eta Ortzik egindako txosten juridikoa gauzak argitzeko eginda dago.

Alkateak esaten dau, bi txostenak direla errespetagarriak baina legalitate aldetik lehengo abokatuaren txostenak ez daukala ezer esaten eta Ortzirenak bai.

J. M. Markaidak esaten dau, nik pentsatzen dot hor erratuta gagozela, ze ni bakarrik sartzen nahiz txosten honegas herriko jendearen tratamenduagatik. Ni beragaz ados egon ahal nahiz, berak ni baino gehiago dakielako legalitate aldetik; bakarrik nago kontrari auzotarrei txostenean emoten jakeen tratamenduagatik. Bertan ulertzen dalako auzotarrak forzata joan zirela eta euren interesagatik ibili direla.

Deitze Erkorekak esaten dau, beste txostenean oinarrituta egin bazan txostena diferentea izango zan. Baita esaten dau, herriko jendea inola bere ez zan izan "instigada".

Leixurik esaten dau, ez zan izan mugimendu espontaneo bat, udalak animatu ebezan sinatzeko.

Deitzek esaten dau, udalak informazio guztia emon eutsean eta baita esan eutsean ze aukera zegoen.

Leixuri Arrizabalagak esaten dau, udalaren ekimen bat izan zan, egia da latigorik ez zala erabili.

Alkateak esaten dau, testualmente irakurriko dot lehengo abokatuaren txostenak zer esaten dauan "Primero.- Que en marzo de 2002 fue el Ayuntamiento de Gatika quien, dentro de la estrategia de defensa propuesta por este Letrado, solicitó de los vecinos la colaboración con el Ayuntamiento, en el seno de una Asamblea que se desarrolló en un abarrotado Frontón municipal". Orduan bai bada Udala eskatu deutsena sinatzen joateko, eta hala eta guztiz nik errespetatzen dot "instigados" berbeagaz zuek ados ez egotea.

J. M. Markaidak erantzuten deutso, txosten hau irakurrita guk ulertzen dogu herritarrak forzatuta eta interes partikularragatik joan zirela sinatzera.

Leixurik esaten dau, herritarren laguntza lortzeko Udalaren ekimen bat izan zala ulertzen dot nik, eta "instigados" berbari ez deusat dramatismo gehiagorik ikusten.

J. M. Fullaondok esaten dau, lehengo txostenak 2. puntuan esaten dau " Que atendiendo a ese llamamiento municipal otorgaron poder general para pleitos y se mostraron como parte codemandada ", honegaz argi dago Udalak esan eutsena hau egin eta hau esan behar dozu.

Deitze Erkorekak erantzuten deutso, argi dago abokatuak bere txostenean nola esaten dauan inizatiba udaletxearena zala, baina momentu baten bere ez zan behartu jendea; han egon zan jende askok sinatu zauan eta beste batzuk ez, ni frontoian egon nintzen eta lehenengoan sinatu nauan baina notarira sinatzen joan behar zanean ez nintzen joan. Joan zan jendea borondatez joan zan, udalari laguntzeko eta herriko normak aurrera ateratzeko, baina inongo interes pertsonalik barik.

Leixuri Arrizabalagak esaten dau, horren alde egoteak interes pertsonala ekartzen dau, herriko normak indirektamente zuri edo zeure familikoei afektatu deutsea eta, eta orduan akabuan bai badago interes pertsonal bat.

Alkateak esaten dau, jendeari laguntza eskatuta ostean erabakitzen dala plenoan kostu guztiak Udalaren kontura izatea.

Deitzek esaten dau, orduko idazkariak plenoan ez dau esaten erabakia ilegal zala, ze ez da agertzen aktetan, oraingo idazkariak esan dau baina orduan ez.

Leixurik esaten dau, guk dudak daukaguz horrelako erabaki bat legalki bada edo ez.

J. M. Fullaondok esaten dau, orain dudak dagozelako eskatzen dau txosten juridikoa alkateak, orduko alkateak ez bazuen txostena eskatu argi edukiko zauen eta horregatik egingo zauen hori.

Alkateak esaten dau, azkenean bozkatu dogu eta baietza da irten dauena.

## **5.- KREDITU MODIFIKAZIOA.**

Auzotarren 6665/04 zenbakidun kasazio errekursoaren kostak (2.322,55.- €) eta prokuradorearen likidazioa (578,89.- €) Udalak ordaintzeko, 2009ko 2. zenbakidun kreditu modifikazioa (2.901,44.- €) behin behingoz onartzea bozkatzen da, eta horrela geratzen da:

- Abstentzia: 4 (J.M. Fullaondo, Iker Arostegi eta Leixuri eta Kepa Arrizabalaga).
- Alde: 3 (J. M. Markaida, Deitze Erkoreka eta Maite Elordui).
- Kasuan afektatua izateagatik, ez dau bozkutzen: 1 (Gotzon Arrieta).

Baita onartzen da, Epaitegira eskutitza bialtzea esanez kreditu modifikazio hau behin-betiko onartzen denean ordainduko direla kostak eta prokuradorearen likidazioa.

## **6.- ESKABIDE ETA GALDERAK.**

### **6.1 Butroiko zubiaren arazoa dala eta, beste bidean dagozan batxeak**

José M. Markaidak esaten dau, Butroiko bidearen gainean lehen berak eskatutako lana egin dala baina batxeetan botatutako harria euria danean urak eroaten dauala.

Alkateak erantzuten deutso, baietz horrela dala eta orain batxeo probisional bat egingo dala, ze egon dala Urdulizeko alkateagaz berbetan eta eurek bide hori urte barruan asfaltatuko dabela esan deusola.

### **6.2 Haurreskolaren egoera**

Deitze Erkorekak esaten dau, haurreskolaren obra oraindik amaitu barik dagozela eta jadanik bertan dagozan defektuak jakinarazoten dauz.

Alkateak erantzuten deutso, haurreskolatik datozen eskakizun guztiak obrako arkitektoari bidaltzen jakozela, eta horretarako garanti bat dagoenez konponduko direla. Behea aldatzeko eta beste gauza guztiak egiteko abuztuan aprobeztatuko dala.

Deitzek esaten dau, baita beheko aldean zulo bat dagoela tapa barik eta handik ume bat pasatu ahal dala, eta orduan tapa egin beharko dala.

Alkateak esaten deutso, baietz hareri ate bat jarri behar jakola inoiz sartu behar bada.

### **6.3 Eskola atzeko patioa**

Deitzek esaten dau, eskola atzeko patioa nahiko txarto dagoela, belarrak ebaki barik, etab., baina hori geure errua dala mantenimendua sarriago egin behar dalako.

Iluntzeko 20'05etan amaitutzat emon da bilera.

**IDAZKARIA**

**ALKATEA**